

Urtarrila 2011

Itunpeko irakaskuntzako langileen boletina

EDITORIALA

Zure ekimena eta partehartzea funtsezkoak dira

Langilegoari dagokionez, 2010. urtea ere *annus horribilis*-a izan da, eta dagoeneko sortu ez dugun krisi honen hirugarren urtea igaro dugu. *Adituen* esanetan krisiak amaitzear behar zuen baina egoerak, krudeltasun osoz, kontrakoa dio, eta 2011. urtean nabarmen okerrera egingo du. Testuinguru honetan, agintari politikoek kapitalari men egin eta beraien interesen alde egiten dute, eskubide sozial eta lan baldintzei eraso eginez eta soldatak murriztuz. Aztertu besterik ez dugu 2011rako onartu berri diren eta azkenengo 30 urteko atzerakoien eta antisozialenak diren EAEko eta Nafarroako aurrekontuak. Gobernuak, kapitalak hala eskatuta, 2011. urtean zehar hauen aldekoak diren hainbat neurri indarrean jartzekoan dira. Lehena, pentsioen gainean inoiz eman den erasorik bortitzena. Beranduzeagorako utzi dute negoziazio kolektiboren erreforma.

Itunpeko irakaskuntzako langileoi ere luzatu digute eraso. Patronalek bere interesen defentsan jardutea zilegia da. Zilegia ez dena, ordea, langileok geure eskubideei uko egiteko eta ezarri dizkiguten soldata murrizketak etsipenez hartzeko nahia azaltzea da, eta, bide batez, langileriaren eskubideen erasoaren aurrean, inolaz ere, amorerik eman-gor ez duen sindikatuaren aurka jotzea.

Soldata murrizketa negoziazio kolektiboaren aurkako eraso da, eta patronalak ez dabilta alde sindikalarekin negoziatzeko asmoz, ikusle soil gisa edo itunpeko irakaskuntzako langileen kontra hartutako erabakiak balioztatzeko ez bada behintzat. Itunpeko irakaskuntzako patronalek bere aukera sindikala ere egin dute. Batzuk, gobernuan dagoen sindikatua aukeratu dute, patronal ezberdinekin gutxiengoan sinatzen duena, hauei murrizketak aplikatzeko eta nahi dutena egiteko txeki zuria ematen diena. Besteek, patronalaren argudioak bere egin eta erreklamazioak eta mobilizazioak egiteko eragozpenak besterik jartzen ez dituen sindikatua.

Urteetako borrokek eta negoziazioek homologazioaren atarian jarri gintuzten. Orain, egoera hain desberdina den honetan, geure burua errespetatzea ezinbestekoa dugu. ELA horiek defendatzeko dago eta bere esku dituen baliabide guztiak erabiliko ditu, langilegoa bere interesen defentsan antolatuz. Bide honetan zure ekimena eta partehartzea funtsezkoak dira.



EKINTZA SINDIKALA ETA NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA DIRA FUNTSEZKO TRESNAK GURE ESKUBIDEEN ALDE EGITEKO

Borroka da bide bakarra

Negoiazio kolektiboa da gure tresna nagusia, lan-eta gizarte-baldintzak arautzeko.

Horren bidez banatzen da sorturiko aberastasuna. Negoiazio kolektiboa, beraz, funtsezko alderdia da patronalaren eta kapitalaren eta langile-jendearen arteko harremanetan.

Azken 15 urteotako ongialdi ekonomikoan Euskal Herriko lan-errentek nabarmen galdu dute pisua aberastasunaren banaketan. Banatu beharreko gozopila handiagoa izan da, eta langile-gastuak, berriz, hein berean handitu beharrean, zenbat eta %6 gutxitu dira.

Orain, egoera zailagoa denean, doikuntza betikoei egiten zaie: langileei. Itunpeko irakaskuntzan, esate baterako, homologazio-bidetik genbil-

tzan; baina orain dena pikutara joan da. Hitzarmenaren negoziazioa egonean gelditu da, eta patronalen jokabideak ikusita, egoerak ez dirudi berriro abiatuko denik; besteak beste, erabakiak alde bakar batetik hartzen ari baitira.

Ez gezurrik, ez xantairik, ez noraezeko biderik. Zenbait patronalek behin eta berriro premiatzen dituzte sindikatuak Administrazioarekin finantzaketaz hitz egitera; baina jakin badakite planteamendu horrek ez duela inolako ibilbiderik. Oraingo gobernuak ezaugarri-

Patronala eta gobernuaren jarrera ez da bidezkoa. Negoiaztera behartu behar ditugu

→ ren bat badu, ilunzaletasuna da; akordioak negoziazio-mahaitik kanpo egiten ditu isil-gordean, bere soinuaren dantza egiten dutenekin; eta trukean diru publikoa banatzen die gutxiengotik akordioak sinatzen dituztenei.

Egoera bestelakoa izan arren, patronalek badakite haiek direla enplegatzaileak. Eta haiek berek egindako txosten juridikoan aztertzen dira soldata-murrizketak. Beraz, irakaskuntzako langileen lan-baldintzak negoziatzeko ardura patronalarena da, eta esparru horretan ordezkariak duten sindikatuena.

Patronalek negoziazioetan onartu dituzten hainbat diru-sail

**Ezin da hitzegin
Irakaskuntzaren
kalitateaz sektoreko
langileen lan-baldintzak
kontutan hartu gabe**

ez dira gero islatu soldatetan; ezin dituzte orain gastuak langileen kontura xurgatu, informazio partziala emanez.

Soldata-murrizketarik egin ezean, ohikoa da hitz erdikako mehatxuak egitea, ikastetxeak ixteko arriskua dagoela esanez. Esan beharra dago hori gezurrezkoa dela goitik behera. Zenbait

ikastetxek diru-arazoak edukiz gero, banan-banan aztertu behar-ko liriteke kasuak auditoria baten bidez benetako egoera zehazteko. Tamalez, azken urteotan itxi diren ikastetxe gehienak etxegintza-espekulazioagatik izan da, edo ikastetxearen egoera ekonomikoarekin zerikusirik ez duten erabakiengatik.

Ondorioz, orain sekula baino beharrezkoagoak dira ekintza sindikala eta negoziazio kolektiboa, gure eskubideak babestu gura baditugu. Irakasleak dira irakaskuntzaren muina; horregatik bertako langileek baldintza onak izatea da irakaskuntzaren kalitatearen berme nagusia.

Murrizketei aurre eginez

SINATUTAKO HITZARMENA EZ BETETZEKO PATRONALAREN AHALEGINA ZAPUZTU BEHAR DUGU



Joan den abenduaren 2an, Itunpeko Irakaskuntzako langileok kaleetara irten ginen ELAK deituriko manifestazio batetara. Honetara CCOO, STEE-EILAS eta UGT atxiki ziren, ezarritako soldata murrizketak salatzeke eta gure eskubideen defentsan. Bilboko kaleak igaro zituen manifestazioak, itunpeko zenbait ikastetxeren aurretik pasatuz eta Eusko Jaurlaritzaren egoitzatik ere.

Itunpeko Irakaskuntzaren ordezkariak handiena duen ELAK hainbat aldiz salatu duen moduan, sektoreko patronalek erabakia dute bere finantziario murrizketak ez diela eragingo bere kontuetan, eta

horren zama guztia langileen bizkarrera etorriko dela. Honek argi uzten du hitzarmena ez betetzeke erabakia eta negoziazio kolektiborako dugun eskubidearen urraketa.

Sektoreko patronal ezberdinek buru belarri ari dira bere erantzukizuna desbideratzen. Sinistarazi nahi digute murrizketak aplikatzea baino

Jarraitu beharko dugu mobilizazioak egiten murrizketen aurka eta gure eskubideen defentsan

beste erremediorik ez dutela eta, ondorioz, gure eskubideei uko eginez, murrizketak etsipenez onartu dituzagun. ELAK, ordea, administrazio publikoko murrizketak salatu zituen legez eta neurri horri babesa ematen zion legea uztailean errekurritu zuen moduan, ez du inolako murrizketarik onartuko itunpeko irakaskuntzako langileontzat.

Bide horretan, patronalen aurka ezarritako gatazka kolektiboek aurrera jarraitzen dute. (Urtarrilaren 18an ELAK bideratutako gatazka kolektibo honen epaiketa izango da ikastoletako patronalen aurka, eta urtarrilaren 25ean Ekimen Sozialeko deituriko patronalen aurka). Norbanakoen demandak ere aurrera jarraitzen dute.

Hau gutxi balitz, 2011rako murrizketak handitzea aurreikusten da.

Beraz, ez dirudi inongo atzera pausorik emango dutenik.

Guztia honen aurrean, ELAK itunpeko irakaskuntzako langileok animatzen ditu eraso hauei aurre egitera eta iragarriko diren mobilizazioetan parte hartzera ere.

Era berean, langile bakoitzaren informazioa biltzen jarraitzen dugu, norbanakoari dagokion diru kopuruaren demandak ezarri ahal izateko.



ELAren gehiengoa sendotuta irten da 2010eko hauteskunde sindikaletatik

Itunpeko irakaskuntzan ELA erreferente izaten jarraitzen du

1980 urteaz geroztik, itunpekoko irakaskuntzan ELA sindikatua da erreferentea. Gehiengo zabala du eta izaten diren hauteskunde sindikaletan babes handiena jasotzen duen sindikatua da. Kurtso hasiera honetan, hauteskunde sindikal

asko izan ditugu ikastetxeetan eta oraingo honetan ere langilegoak bere konfiantza eman dio ELA sindikatuari.

Gizarte ekimenean, CCOO saiatu da patronalari jokoa egiten. Azkenengo hitzarmenaren sinadura baino lehen K.E. eta AICerekin akordio sekretuetara iritsi zen eta

gutxiengoan sinatzeko prest zegoen bozketak ematen ez dioten protagonismoa irabazi nahian eta bere burua fidagarriz aurkezten dute departamentuaren aurrean.

Kontuan izan behar da, CCOOeko arduradunak izandakoez beteta dugula gaur egungo hezkuntza saila. Kristau Eskolen idatziek diotenei erreparatu, haiek dira gauzak behar den moduan egiten dutuztenak... Kontu guzti hauek argi eta garbi erakutsi dute zer diren eta langilekoak % 12,70 ordezkari emana dio.

STEEk jende historikoa badu, baina hortik haratako ez du bere mensajea iristerik lortu. Epealdi honen ondoren, bere ordezkari %10ren azpitik geratu da.

Gizarte ekimenean LABek testigantzaordezkari %5,74). Ikastoletan ordea, gehiengo izaten jarraitzen du. Honek, are eta ulergaitzagoa egiten du bere jarrera gaur egungo egoeran, non Partaide eta EIBen aurrean otzan azaltzen den.

UGTk eta USOk ez dute apenas ordezkariarik gizarte ekimenean.



	GIZARTE EKIMENA Iniciativa Social		IKASTOLAK	
	Delegatuak	Ordezkaritza	Delegatuak	Ordezkaritza
ELA	420	%58,82	101	%38,55
CCOO	124	%17,37	0	%0,00
STEE-EILAS	91	%12,75	2	%0,76
LAB	41	%5,74	152	%58,02
UGT	23	%3,22	0	%0,00
USO	2	%0,28	0	%0,00
Besteak	13	%1,82	7	%2,53
Guztira	714		262	

Ordezkaritza (%): Gizarte Ekimena + Ikastolak

	ELA	LAB	CCOO	STEE	UGT	USO	Besteak
Araba	31,58	20,18	22,81	19,30	0	0	6,14
Gipuzkoa	55,74	28,57	7,28	5,04	1,40	0	1,96
Bizkaia	56,63	13,47	14,26	10,50	3,56	0,40	1,19
GUZTIRA	53,38	19,77	12,70	9,53	2,36	0,20	2,05

Urtarrilaren 27an, greba orokorra

2011ko urtarrilak 28an historian eman den pentsioen erreformarik gogorrena onartu nahi dute: orain bai inoiz baino beharrezkoagoa dela lan munduko jendearen interes sozialak defendatzea eta erreforma onartu aurretik geure agenda bat egituratzea, neurri honi inongo oposiziorik aurkeztuko ez dioten partiduak agerian geratu daitezten.



1985etik inposizioz datorren erabateko erreforman kokatzen den erreforma honen helburua, pentsioetarako bidea oztopatzea da, erretirorako adina atzeratuz

(65etik 67ra), pentsioa jasotzeko gutxieneko kotizazio urteak haundituz (15etik 20ra) edo aurrejubilazioak mugatuz, alde batetik; pentsioen kopurua txikitzea, beste aldetik, %100 kobratu ahal izateko kotizatu beharreko urte kopurua haundituz (35etik 38 edo 40ra), oinarri erregulatzailera kalkulatzeko urte kopurua haundituz (15etik 20 edo 25era) edo pentsioen urteko igoera KPI baino baxuagoa izanez.

Baina ez gaitzen inozoak izan, pentsioen erreforma entitate finantzarioak eta funts pribatuen negozioa hazteko egiten da, gainontzeko dena gezurra da, manipulazio galanta, politikarien kolaborazioarekin egindakoa.

Sortutako BPGren arabera, ekonomikoki oso onak izan diren azkeneko 15 urtetan ia batere aldatu ez den pentsioen gastua haunditzea ez dute planteatu ere egin, hainbesteko irabaziak izan dituzten enpresen kotizazio sozialak haunditzea ere ez dute planteatu; ez eta ere soldatak hobetzerik horrela kotizazioak igoz; AHT, makroazpiegiturak, errepideak, egin nahi dituzten errauskailuak, justizia, polizia edo gure politikarien soldatak eta bizitza osorako pentsioak bezela akaso pentsioak ere zerga bidez finantzatzea ere ez dute planteatzerik nahi izan.

Langileriaren aurka azken hamarkadetan emango den erasorik haundiena burutzen duten bitartean ezin dugu lo egon. **Urtarrilak 27an nazioa geratu eta kalera irten behar dugu.** Greba Orokor hau urte askotako borrokaren ondoren gure aurrekoengandik jasotako eskubideak defendatzeko egiten dugu, eta era berean, borrokatuz, datozen belaunaldiek ere jasotzea nahi dugulako.

Gizarte ekimeneko eta ikastoletako epaiketak

Ikastoletako patronalek soldata murrizteko erabakiaren aurka ELAk aurkeztutako demandaren epaiketa 2011kako urtarrilaren 18an izango da, eta Gizarte Ekimeneko epaiketa, urtarrilaren 25ean. Epaiak guri arrazoia emanez gero, hitzarmenean ezarritako soldatak bere horretan kobratzeko eskubidea bermatuko litzateke.

Nº AFILIACION / AFILIAZIO ZENBAKIA

Nombre / Izena _____
1er apellido / 1. abizena _____
2º apellido / 2. abizena _____
Fecha de nacimiento / Noiz jaioa _____

Lugar de nacimiento (Indicar provincia) / Non jaioa _____
D.N.I. / N.A.N. _____

DOMICILIO / HELBIDEA

Dirección / Helbidea _____
Localidad / Herra _____
Provincia / Probintzia _____
Teléfono / Telefonoa _____

EMPRESA DONDE TRABAJA / LANTOKIAREN IZENA

Nº Inscripción Seguridad Social /
Aseguro Sozialaren Zenbakia _____
Nombre / Izena _____
Domicilio / Helbidea _____
Localidad / Herra _____
Tipo de industria / Industri mota _____
Convenio / Konbenioa _____

PAGO DE CUOTAS / KUOTEN ORDAINKETARAKO

Banco o Caja / Bankua edo
aurrezki-kutxa _____
Sucursal / Sukursala _____
Nº de cuenta / Kontu zenbakia _____
Tipo de cuota / Zein mailako kuota _____
Fecha de solicitud / Eskabidea noiz
egiten duzu _____

Firma / Sinadura